Guztion Proiektua



Cáritas
Bizkaia

GUZTION PROIEKTUAREN AGIRIA

1. Puntua. Komunitatearen konpromisoa

1.1. Ebangelioak agintzen dauan lez (cf. Jn. 13, 34), **Pertsona** bakoitzak eta **komunitate** bakoitzak aintzat hartu behar ditu maitasunaren mandamendua, justiziarekiko konpromisoa eta alkartasuna.

1.2. Fededunek norbere kontura edota taldean (nahita alkartuta) bizi dabe konpromisoa. Komunitate bakoitzak be, komunitate lez hartzen ditu bere ganean Ebangeliotik jatorkuzan konpromisoak.

1.3. **Txirotasunaren eta baztertzearen** ganean modu desbardinetan hartu daikegu konpromisoa. Caritas, txirotasunaren aurrean eta maila bakoitzean (parrokia, sektorea, eleizbarrutia), **konpromiso solidarioaren erakunde mailako adierazpena eta adierazpen komunitarioa** da (cf. Mt. 25, 31-46).

1.4. Fededun bakoitza, komunitateko **kide aktibo eta jakitun lez,** Caritasen konpromisoaren parte da (cf. Eginak 4, 32).

2. puntua. Komunitate handiago baten dagoan komunitatea

2.1. Lekuan lekuko eleiza parroki komunitateetan egituratzen da hein handi baten. Parroki komunitate horreek, lan pastoral solidarioagoa eta antolatuagoa egin ahal izateko, sektore pastoral izeneko elkarteetan batzen dira.

2.2. Parrokia bat ez da komunitate isolatua, ezpada errealitate komunitario osotuago baten zati da, hau da, lekuan lekuko eleizbarrutiko eleiza. Eleizbarrutiko eleiza lekuan lekuko eleizak alkartuaz osotzen da, eta holan sortzen da, hain zuzen, Eleiza unibertsala (cf. LG 23).

2.3. Parroki edo sektore komunitate batek txiroakaz eta marginatuakaz bizi eta adierazoten dau konpromisoa, beti be, lekuan lekuko eleiza osatzen daben beste errealitate komunitario batzukaz alkartasunean.

3. puntua. Komunitateen arteko alkartasuna

3.1. Caritas, bere egitura eta adierazpen desbardinetan (parrokia, sektorea, eleizbarrutia), eleizak txiroakaz daukan alkartasun proiektua da.

3.2. Txiroen zerbitzurako dan komunitate edo eleiza unitateen arteko alkartasun proiektua be bada.

3.3. Caritasek alkartasunerako bokazinoa dauka txirotasunik gordinena jasaten dabenakaz. Horretarako, gehien daukien eta gehien behar daben komunitateen alkargune izan gura dau alkarri laguntza emon ahal izateko.

4. puntua. Alkarbanatzeko deia

4.1. Bizkaiko lekuan lekuko eleizak Caritas bultzatzen dau eleizbarruti guztian karitatea eta laguntza soziala zabaltzeko.

4.2. Eleizbarrutiko Caritasek, eta sektoreetako parrokietako Caritas guztiek proiektu bateratua daukie txiroei laguntza emoteko; hori Estatutuetan ikusi daikegu.

4.3. Eleizbarrutiko Caritasek parrokia eta sektoreetako Caritas taldeak sendotu gura ditu. Horretarako, Caritas horreen ekintza orientatu, koordinatu, bultzatu eta konpartitu gura dau, holan ondasunen kristau komunikazinoa erraztu ahal izateko.

5. puntua. Sakoneko irtenbideetara heltzeko

5.1. Caritasek txirotasunari egin gura deutso aurre, arrazoi eta eragin larri eta sakonenak aztertuaz. Caritasen asmoa ez da laguntza ekonomikoa bakarrik emotea, pertsonak gizarteratu gura ditu, baita pertsona horreen garapen integrala lortu be. Era berean, txirotasun egoerak sortzen eta mantentzen dituen egiturak aldatzeko lan egiten dau.

5.2. Bazterreratzea jasaten daben pertsonei laguntasuna emoteko, baliabide batzuk (orientazinoa, harrera, laguntasuna, prestakuntza, giza laguntza eta laguntza teknikoa) koordinatuta eta bermatuta izan behar dira, harik eta gizarteratze eta laneratze prozesuak oso-osorik lortu arte.

5.3. Ekintza sozial integral eta integratu horrek ahaleginak batzea eskatzen dau, lehentasuna daukien helburuak ezarriaz eta baliabideak batuaz. Guztien arteko planek alkartasuna adierazoten dabe, bai txiroakaz, bai komunitateen artekoa.

6. puntua. Guztion proiektua lantzeko ahaleginetan

6.1. Guztion proiektuak nortasun elementuak eta ekintzako elementu komunak bilatu gura ditu, elementu horreetan pluraltasuna oinarritu ahal izateko.

6.2. Caritas aitatzeak erakundearen izpirituagaz koherenteak diran ekintzak egitea dakar. Aniztasuna aberastasun iturri da, isolamendua eta urruntzea ez denean.

6.3. Guztion proiektuaren helburua arazoak, sentimenduak, informazinoa eta giza baliabideak alkarbanatzea da. Helburua ez da bakarrik guztiona izango dan fondo komunitarioa lortzea, izan be, fondo horrek alkarbanaketarako beharra dakar.

6.4. Guztion proiektua landu eta onartzean Caritasen nortasunaren heltze prozesuari amaiera emongo jako. Horregaitik, hain zuzen, prozesuaren erritmo eta uneak errespetatu behar dira, baita apurka-apurkako partehartzea egiteko aukera be.

6.5. Guztion proiektuagaz, Caritas bakoitzak dituan arazoak lekuan lekuko eleizetan sartu ahal izango ditu.

6.6. Guztion proiektuak Guztion Fondoa eta lehentasun, helburu, baliabide eta jarduerak guztion ardura izan daitezan lortu gura dau.

6.7. Guztion Proiektua lurraldeetako Caritasen eta Eleizbarrutiko Caritasen arteko osagarritasun eta laguntzaren bidez adierazoten da, bai baztertuen zerbitzuan, bai eleiz komunitate guztia karitatera bultzatuaz. Erlazio horren oinarrian agertzen dan erantzukidetasuna "Sektoreko arduradunen Osoko Bilkuran" eta "Caritasen Eleizbarrutiko Kontseiluan" (erakunde guztiaren gobernuko organo kolegiatua) lantzen da.

ANTOLAKETA EREDUAK

I.- SARRERA

Hilabete batzutan zehar, Caritaseko taldeak lanean jardun dogu Guztion Proiektuagaz bat datozen eta koherenteak diran antolaketa ereduak bilatzen.

Une desbardinetan eta testuinguru pastoral eta sozial jakinetan sortuak, Caritas taldeak bilakatuaz joan gara, batez be aukerek bultzatuta eta ikusi ditugun beharrizanei erantzuna emoteko.

Orain esku artean daukagun Guztion Proiektuak egun dagoan aniztasuna aztertzera garoaz, baita aniztasun hori antolatzera be, gura ditugun parte-hartze eta ordezkaritza mekanismoek funtzionatu daien, eta hori guztiori baztertuei eta komunitateari eskeintzen jaken zerbitzuaren eraginkortasuna murriztu barik, areagotuaz baino.

II.- ERIZPIDEAK

Caritas taldea izanik, antolaketa ondorengo erizpideak kontuan hartuaz egin gura dogu, izan be, horreek adierazoten dabe Guztion Proiektuaren gogoa:

1.- Guztion Proiektuan parte hartzeko Caritas taldeak ez dira derrigortuak izango antolaketa eredu jakin bat hartzera, izan be, Guztion Proiektuak beste Caritas taldeakaz alkartasunean bizitzeko gogoa defendatzen dau beste edozeren ganetik.

2.- Caritas guztiek daukien alkartasunerako gogo horrek, baina, izate komunitario horrek dakartzan zeinu eta adierazpenak hartzera behartzen gaitu. Besteak beste, eta eraginkortasunari jagokonez:
   - Antzeko antolaketa hartu, alkarbizitza eta koordinazinoa errazteko asmoz.
   - Lanerako erizpide komunak izan.
   - Guztion fondo baten bidez, giza baliabideak eta baliabide ekonomikoak alkarbanatu.
   - Programa eta aurrekontu komunak egin; horrela, beharrizan gehien daukien Caritasei lehentasuna emon ahal izango jake eta.

3.- Gauzak holan, Caritas guztiek, antolaketa eredua edozein dala be, Caritasen Arduraduna izango dan pertsona bat izan behar dabe. Pertsona horrek barruko eta kanpoko koordinazinoaren ardura izango dau, eta ardura hori Caritasen goi-instantzietan zein esparru pastoral edo sozialetan izango dau.

4.- Caritas guztiek orientazino eta metodologia bat aintzat harturik garatuko ditue programak, eta, era berean, gainontzeko Caritas guztiek dituen partehartze eta baliabideen administrazinorako erizpide berberak onartuko ditue. Aldi berean, Caritas guztiek eleizbarrutiko Guztion Fondoan parte hartzea onartuko dabe, fondo horretara emariak eginaz eta hartuaz.

5.- Caritas guztien asmoa, edozein mailatan (parrokia, sektore edota bikariotza), besteakaz koordinatzea da, ordezkarien bidez erakundearen bizitzan eta erabakietan parte hartuaz. Partehartze horren ondorioz, Caritas guztiek ahaleginak egin beharko ditue guztion proiektuaren koordinazino mekanismoetatik sortzen diran ondorioak berenganatzeko.

6.- Ordezkarien bidez, bideak egon behar dira pertsona guztiek izan daien Caritasen lanaren barri, eta eritzia emon ahal izan daien.

III.- "A" EREDUA

1.- DESKRIPZINOA

Orokorrean hiriguneetakoa da, hain zuzen be, bolondres eta arazo sozial ugari dituen hiriguneetakoa.

Gure eleizbarrutian sektorea partehartze pastoraleko oinarrizko unitatea da. Lurralde unitateari zerbitzu homogeneoak eskeintzeko asmoz, eredu honen helburua, behar dan malgutasunaz, parrokia arteko koordinazinoa eta sektore mailako programen garapena da, beti be, komunitateetatik eta laguntza jaso behar daben pertsonetatik aldendu barik.

2.- BARNE ANTOLAKETA

A) GARATZEN DITUAN JARDUERAK

Sektore barruko lurraldean Caritaseko agenteek egiten dituen karitatezko jarduerek eta jarduera sozialek osatzen dabe.

Lehenengo laguntzako programak eta sentsibilizazino programak oinarrizkoak dira, eta hori kontuan izanik, sektorean antzemandako beharrizanei aurre egiteko zerbitzuak garatu behar dira: haurtzaroa, drogomenpekotasuna, osasuna, hirugarren adina, Norabide, gizarteratzea, atxilotuak, etorkinak, etxebizitza, hirugarren mundua...

B) PROGRAMA BAKOITZEKO TALDEA

Programa bakoitza talde batek egiten dau.Talde bakoitzean koordinatzaile bat dago; koordinatzaile hori sektoreko koordinazinoagaz dago lotuta eta Eleizbarrutiko Caritasen programagaz dago egituratuta.

C) PROGRAMAREN KOORDINATZAILEA

Zerbitzu bakoitza bultzatu eta dinamizatzen dau. Taldeak egin beharreko lanen programazinoa, antolaketa eta banaketa egiten dau.

D) SEKTOREKO TALDEA

Sektoreko taldean sektorean garatzen diran programa guztiak dagoz ordezkatuta. Talde horretan hartzen dabe parte, baldin eta badagoz, ekonomiaren arduradunak, aholkulariak...

Sektoreko taldeak Sektoreko Caritaseko jardueren kudeaketaren ardura dauka, eta horreen aurrekontu, programazino, jarraipen eta ebaluazinoan erantzukizunak daukaz.

E) SEKTOREKO ARDURADUNA

Sektoreko arduradunaren oinarrizko zeregina Sektoreko Caritas koordinatzea eta beste Caritasakaz, eleizbarrutiko Caritasegaz eta Sektoreko komunitateagaz lotura lanak egitea da. Caritasen lan guztia suspertzeko eta bideratzeko ardura izango dau, garapena bultzatuaz.

Ahal dala, laikoa izango da, eta Bikarioak izendatuko dau komunitatearen eta Sektoreko Caritasen proposamenari jarraituaz.

F) SEKTOREKO BILTZARRA

Sektoreko arduradunak Bolondresen Biltzarrak deituko ditu, batez be, informazinoa emoteko eta eztabaida edo hausnarketarako.

3.- ORDEZKARITZA

Caritas Sektoreko Kontseilu Pastoralean egongo da ordezkatuta, baita parrokia bakoitzekoan be (behar bezala).

- Sektoreko arduradunak bikariotza mailan hartuko dau parte.
- Sektoreko arduradunak Sektoreko Arduradunen Osoko Bilkuran hartuko dau parte.
- Ahal izan ezkero, Caritas Gizarte Ongizateko Udal Kontseiluan egongo da ordezkatuta, baita beste erakunde batzutan be.
- Sektoreko beste talde batzukaz eta eleizako eta inguruko ekimenakaz koordinatzeko asmoa dauka.

4.- BALIABIDEAK

A) GIZA BALIABIDEAK

Sektore mailako lanean bolondresak nahitaezkoak dira; sektoretik, eta eleizbarrutiko Caritasegaz batera, bolondresen prestakuntza etengabea egingo da.

BALIABIDE EKONOMIKOAK

Sektoreko taldeak, baliabide ekonomikoak eta alkartasun erizpideak kontuan hartuaz, Caritasen Guztion Fondoan hartzen dau parte, gastuak eta dirusarrerak alkarbanatuaz.

IV.- "B-C" EREDUA

1.- DESKRIPZINOA

Landa inguruetakoa (populazio sakabanaketa daukienak) eta arazo sozial gitxi edo ez gehiegi, eta sektore mailako koordianazino eta kohesioa daukien hiriguneetakoa da.

Eredu honen barruan egongo lirateke ingurunearen (soziala, eleizakoa, geografikoa...) ezaugarriak edo beste ezaugarri batzuk dirala eta, funtzionamendu eta antolaketa oinarri lez parrokia daukienak, eta erreferentziazko sektore egiturara jotzen dabenak.

2.- BARNE ANTOLAKETA

GARATZEN DITUAN JARDUERAK

Caritas honeek garatzen dituen jarduerak parrokietan egiten dira batez be, eta programen bidez antolatzen dira. Oinarriko Ekintza Soziala (Harrera) eta Sentsibilizazinoa dira oinarrizko programak, beti be, txirotasun errealitateak hurreratzeko eta fededunei zein gizarteari orokorrean parte hartzera bultzatzeko asmoz.

Bai oinarrizko programak, bai egingo diran barriak, errealitatearen azterketetan oinarrituko dira, izan be, horrela, ingurunean izan daitekezan txirotasun egoera barriak aurkitu ahal izango dira.

PROGRAMA BAKOITZEKO TALDEA

Programa bakoitza talde batek osatzen dau, eta arduradun bat dauka. Era berean, parrokiako Caritas bakoitzak arduradun bat dauka koordinazinoaz arduratzeko eta sektoreko mahaian ordezkatzeko.

SEKTOREKO MAHAIA

Parrokiako Caritas bakoitzeko arduradunek hartzen dabe parte. Maila honetan sektoreko koordinazinoa lantzen da, eta, aldi berean, eremu zehatz gisa eratzen da, izan be, bertan bateratzen dira erizpideak, informazinoaren joan-etorria ahalbidetzen dau, prestakuntzarako eremua da, jarduera bateratuak egin daitekez...

Sektoreko mahaian arduradun bat dago, eta arduradun hori arduratzen da, hain zuzen, koordinazinoaz, eta bikariotza mailan eta sektoreko arduradunen osoko bilkuran be hartzen dau parte.

3.- ORDEZKARITZA

Caritas Parrokietako Kontseilu Pastoralean dago ordezkatuta, eta, egon ezkero, Sektoreko Kontseilu Pastoralean.

Era berean, inguruko alkarte eta bitartekari sozialakaz koordinatu eta jartzen da harremanetan, baita eleizetako beste talde batzukaz, GKEakaz...

4.- BALIABIDEAK:

A) GIZA BALIABIDEAK

Caritasen lanean bolondresak funtsezkoak dira. Caritas horreen erronka nagusia bolondresak lortzea da, bai proiektu barriak egin ahal izateko, bai gaur egungo taldeei laguntza emoteko edota taldeok barriztatzeko.

Bolondresen prestakuntza etengabea zaintzea be oso alderdi garrantzistua da.

BALIABIDE EKONOMIKOAK

Caritasen Kanpainen bidez Guztion Fondoan hartzen da parte, eta sektore barruan alkartasun ekonomikoa bultzatzen da.

V.-BIKARIOTZA MAILA

Sektoreko arduradunak Eleizbarrutiko Kontseiluan bikariotza mailan biltzen dira bikariotzako ordezkariak deituta.

Instantzia honek helburu informatiboak daukaz: goitik beherako (Eleizbarrutiko Kontseilutik sektoreetara) eta behetik gorako (sektoreetatik Eleizbarrutiko Kontseilura) informazinoa eskeini.

Baleiteke bikariotza-jarduerak garatzea edota sektore mailako zerbitzuak bikariotzako beste sektore batzukaz alkarbanatzea.

Caritasen sektoreetako arduradunek bikarioari ordezkariaren proposamena egiten deutsie Eleizbarrutiko Kontseiluan, Caritasen gobernu organoan, hain zuzen.